

Keinu pedagogikoa

(The pedagogic gesture)

Ugartetxea, Arantxa
Eusko Ikaskuntza
Miramar Jauregia - Miraconcha, 48
20007 Donostia

BIBLID [1337-4446 (1999), 10; 83-93]

Eusko Ikaskuntzak, Paulo Freire pedagogo brasildarrari eskainiriko omenaldian, azpimarratu nahi nuke: berarekin, hezkuntza eremuan, indar hezitzaileak bezala, biziutako keinu pedagogikoen balorapena, eta nola sentitzen dudan niregan gaur arte, bizipen haien eragina.

Giltz-Hitzak: Paulo Freire.

Nésta homenagem oferecida por Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, ao pedagogo brasileiro Paulo Freire, desejo salientar: o valor como força formadora, dos gestos pedagógicos que eu tenho experimentado com éle nos diferentes espaços educativos; e que ainda hoje sinto a importante influência déles sobre mim.

Palabras Clave: Paulo Freire.

En este homenaje ofrecido por Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, al pedagogo brasileño Paulo Freire, deseo destacar: el valor que tienen como fuerza formadora, los gestos pedagógicos que con él experimenté en los diferentes espacios educativos, y que todavía hoy siento en mí su importante influencia.

Palabras Clave: Paulo Freire.

A l'occasion de l'hommage rendu par Eusko Ikaskuntza-Societe D'etudes Basques, au pédagogue brésilien Paulo Freire, je voudrais souligner: l'importance des démarches pédagogiques que j'ai expérimentées auprès de lui dans différents domaines éducatifs et qui exercent sur moi une influence toujours durable.

Mots Clés: Paulo Freire.

Denok gaude geure bizitzan zerbaitezara gehiago lotuta, eta lotura edo zaletasun hori gure izatearekin zer ikusia duen zerbaite da. Bizitzaren ildoan gertaturiko zirrararen ekarpen zehatzaren ondorioa hain zuzen, esango nuke nik. Ni Paulo Freire pedagogoaren, zenbait keinu pedagogikoaren ikutuaz, bizi naiz azpaldidanik. Horregatik hitzaldi hau prestatzerakoan, nik bizitutako istorioetan murgiltzen ahalegindu naiz, eta gaur egun distantziak ematen didan egokitasunaz baliaturik, eguraste zoragarri bat bizitzen ari naiz.

Hirurogeita hamarreko hamarkadan aukera ezin hobea eduki nuen Colombiako herri txiki batetara joateko, laquntzaile bezala, Barbosa da herrixkaren izena. Baina gehienetan gertatzen den bezala laguntzaile izatetik lagundua izatera igaro nintzen berehala, mundu berri bat aurkitu nuen, abegikorra, apala, txirotasuna eta behartsuak ugari agertzen ziren edonon, baina agertzen zuten xalotasunak txunditurik utzi ninduen. Girotzen nenbilen ni, lehenengo hilabeteak ziren, eta... Bogotatik herriko seme bat etorri zen ondoko herri batetara, beraz maisua zen, eta irakasle honen eginbearra Freireren, nagusien alfabetatze metodoaren, berri ematea zen, eta ez bakarrik berri ematea baizik irakastea ere bai, horretarako ikastaro berezi bat antolatuz. Ikastaro hartan parte hartu ondoren nagusien alfabetatze lanean hasi nintzen.

Ez nekien oraindik nondik norako bilakabidean abiatzen nintzen. Beraz ikastaro zeharo berria izan zen neretzat, herriak erabiltzen zituen hitzek gordetzen zituzten sama historikoaz, jabetzen hasi nintzen. Testurik gabeko metodologia zen. Egunerokotasunean bizitzen ziren gertaerak osatzen zuten ikastaroa. Gogoetak, elkarrizketak, eztabaidak, gizartearen egoera aldatzeko gogo eta nahiak nabarmentzen zindoazen, dinamika haren barruan. Talde hartan denak alfabetatuak ginen, baina ura ez zen irakurketa eta idazketa mekaniko baten ikastaroa, geure buruaren irakurketa baizik. Lur jotze eta kokatze bat gertatzen zen gutariko bakoitzaren kontzientzia eta nondik norako bidearen ezaguera argiagoa dastatzen genuen. Freireren ikasle izateak daramakien aberasgarritasun bidean nengoen, eta gaur harte jarraitzen dut. Orduan hogeita hamar urte nituen, gaur berrogeita hamabost.

Praktikak eramaten du beti bere ikas mamia, eta ikas mami honetatik xurgatzen, eduki nuen aukera ezin hobea keinu pedagogiko miresgarri bat bizitzeko: emakume nekazari behartsu eta adinekoa zen, alfabetatze ikastaroetara etortzen zen, apreta gabeko oin gogortasunez beteak, bizimodu gogorraren aztarnak esku, soin eta aurpegian, nabariak ziren, eta... halako batetan... arbelean idatzia zegoen hitza irakurri zuen, "casa". Lehenengo aldia zen, etxea hitzak daramakien eduki emozionala, kulturala eta estrukturalaz jabeturik, hitz hura irakurtzen zuela; sama handietariko bat hain zuzen gizarte mota hartan. Ametsez betetako hitz miresgarria, ea ezer ez daukaten beren sustraiak egokitzeko gizarte motan, hainbeste ahozkatuteko hitza, beti besteen etxe polit eta erosoak miresten zegoen emakume baten irakurketa argia zen. Haren aurpegi alai argiz betea, begirada garbia, niri begiratuz eta bera ere gai zela irakurtzeko adierazi nahian, ahantzi ezinak ditut. Gaitasun pertsonalaren aurkikuntza zen metodoaren altxorra eta hau bizi ondoren eten gabeko irakurketa ildoan geunden.

Oraindik ez nekien, ongi, zertan nenbilen. Geroago berriro Donostiara itzuli nintzenean, eta euskaraz alfabetatzerakoan, emakume haren sentimendu bera dastatzeko aukera ezin hobea eduki nuen, zeren eta... nire gaztetxo eta gazte denboran, norbaitek keinu pedagogikoak ez diren bidez, sentituarazi ninduen nire ama hizkuntzaren balio gabetasuna eta ezina. Horrela nik ere esperimentatzen nuen "nik ere ahal dut", euskararen gaitasun linguistikoa, eta nire euskal gaitasuna. Esan beharra dut, nire euskarazko irakasleak, behar bada berak Freire gehiegi esagutu gabe, berezkoak dituela, herri sena eta ikaslearekin bat egiteko joera. Bien arteko egin beharra zen hura, eta horrela gertatu zen, horregatik gaur egun ere bizirik gordezen dut nire euskal gaitasun bizipenean euskal irakasle haren, keinu pedagogikoz bizitutako irakaskuntza.

Gero ikastolak, umeengandik datorren hizkuntzaren irakurketa bizia egiteko aukera eman zidan eta... gero eta gehiago, zer zen pedagogia ezaquitu nahian, pedagogia munduko ikastaroak egitea erabaki nuen. Pedagogia karrera egin nuen, Freirek deritzen dion *bancario* erara, hau da: irakaskuntza-ikaskuntza, jakintzaren transferentziara mugatuta gehiengan. Baina hala eta guztiz keinu pedagogikoak bizitzeko ere aukera izan nuen, irakasle batzuen sistema gainditzeko joeragatik eta nire ikusmirak mugak gainditzera eramaten ninduelako. Horrela ba behin baino gehiagotan eserita geunden ikasgela aulkitik, ezagueraren eremu aberasgarrira bidaiatuz, gaiaren bizipena nireganatzen nuen. Freireri buruz idatzita zegoen guztia saiatu nintzen irakurtzen, identifikazioaren bila nenbilen.

Biziaren ildoan, berriro ere, Brasilgo São Paulo hirira joan nintzen eta han egokitu nituen nire nahi, asmo, amets eta maitasuna. Esan beharra daukat, erabaki hau hartzerakoan ez nuela Freiretzaz pentsatu, baina iritsi nintzen bezain laister, non aurkitu nezakeen galdezka hasi nintzen, eta nola ez... topatu baita ere.

São Pauloko unibertsitate katolikan klaseak emateko aukera eskaini zioten 1980an Brasilera itzuli zenean, eta han jarraitzen zuen lanean naiz eta beste zenbait lekutan ere ibili. Unibertsitatera deitu nuen, eta zein ordutan klasea ematen zuen jakin ondoren harantz abiatu nintzen. Gogoan dut geure lehenengo besarkada, irakasle eta ikaslearen arteko besarkada zen, keinu pedagogiko honek: irakasle eta ikaslearen arteko tentsioa xamurtu zuen, elkar ez ezagutzearen distantzia txikitu eta bera ezagutze gertaerak zeramakien hunkipen zirraratsua, bideratu zuen. Bera onartua, ulertua, eta mirestua sentiitzen zen une hartan, xalotasuna zen agertzen zen adierazgarririk handiena. Bere ikastaroan parte hartzea eskatu nion zuzenki eta "é um honor para mim" esanaz, gela barrura sartu ginen talde osoari adieraziz, nere gogoa eta bere baietza, onartuak izan zitezen talde osoaren oniritziz. Handik aurrera keinu pedagogiko katemaila baten parte hartzailea izan nintzen gela hartako dinamika barruan. Zeinu pedagogiko tartean bizitzea izan da nabarmenki, batez ere, Freireren ikastaroetan parte hartzea, niretzat. Pedagogiaz jantzitako adierazpen, portaera, elkarrizketa, e.a. nahiko berezkoak zituen irakasle berezi honek, bere izaerarekin bat egiten zuten, ezan dezaket, bera pertsona bezala pedagogiaren materializazio zati zehatz bat zela, bere egintzen bidez materializazio hau haragitzen zelarik, zenbait keinuren bidez.

Gauza asko esan ditzaket berari buruz, tentsio pedagogiko batetan bizi izan ditudalako zenbait gertaera ezagueraren bilakabidean, berarekin parte hartutako ikastaroetan, baina batzuetara bakarrik hurbilduko naiz une zehatz honetan, keinu pedagogikoz samaturiko gertaerak dira, emozionalki ukitu nautenak, eta profesionaltasunez ornitutako praktika hezitzaileak.

IKASLEAREN HITZARI ADEITASUNA

Lehenengo eta bat, entzundako hitza izan behar du, denbora guziaz baliaturik, presarik gabe. Hitz hau, beste ikaslearekin eta irakasleak erabiltzen duenarekin batera, ezinbesteko osagaia denez, ezagueraren aurkezpen uanean. Ahozko adierazpen zehatz honetaz baliatzen gara denok, ezagueraren gureganatze hori gertatu dela agertzeko. Freireren ikastaroetako ikasgeletan ez dut inoiz somatu inor gaizki sentitu denik, esan duena baliogabekoa bezala onartua izan delako, ez dagoenez alferrikako hitzik, denak dute bere erreferentzian giro berezi bat, kondaira zehatza, ezaguera pertsonala, ez gaude inor zero puntuan, denok ditugu zenbait ezagutza gureganatuak eta erreferentzia pilo bat. Mingainaren askapena era eroso eta lasaiean gertatzen zen ikastaro haietan. Irakaslearen hitza ez zen ikasle hitzaren aurrean kokatzen zen hitz magiko bat, jakinduria duenaren hitza, baizik galdegai eta

ikusmiraz eraturakoa; ikasle hitzaren bila zebilena, osaketaren bilakabidean. Ikaslearenakin batera eraikitzen zihona, azken batean, irakasle-ikaslearen hitza izanaz. Berbalki egiten zen irakurketa zen hura, bakoitza bestearen hitzetara hurbildu nahian, ezagutza begi aurrean edukitzen saiatzen ginen bitartean, hontan bereziki, eta nondik nora genbiltzan noraezean erori gabe gaiari eusten, saiatzen zen batez ere irakaslea; berak, ezagueraren aurkikuntzan jorratutako bideak eta ekarpenak, tartean agertzen zituelarik.

ISILUNEEN IRAKURKETA

Isilaldiari errespetoa, ahozkatutako hitzaren zati bat denez, da, beste keinu pedagogiko bat irakaskuntza aurrerakoi honetan, xehea baina erreala. Isilune mota askotakoak daude, han gertatzen zirenak, gehiengoak behintzat ez ziren asperraldiaren adierazpenak, edo hitz egiteko bildurrarenak, edo denbora pasatze bat... han gertatzen ziren isilaldiak, norberak zeramkien gaiaren bereganatzearen denboraldiaren isiluneak ziren. Isilunearen bokantza larruazalean sentitzen zen zerbait zen. Esperientzi zoragarria bihurtzen zen, irakaslearen erakuspenak, aukitik at bidaiatzera gonbidatzen gintuen, gertatzen zenaren mugak gaindituz. Era honetara, gutariko bakoitza, somatutako zerbaiten atzetik abiatzen zen elaboratu nahian, era zehatzagoan lantzeko gogoz. Gela eta ikasmahaiak gainditzen zituen gertaera zen, gaiaren miresle bihurtzen ginen, argi indartsuagoarekin ikusitakoa lurperatzeko presa, hunkipeenez bizitzen genuelarik hain zuzen. Hau da: gure egunerokotasunean keinu pedagogiko batetara bideratuak suertatzen ginen, lurjotze hartan, eta bidai hartako itzulera konpromizuz bete zegoen.

Isiluneez izaten zuten baita ere, adierazitakoarekin adostasun baieztapenaren ezaugarria, norberaren agerikoa izango balitz bezala, azken batean denboretan bila ibilitako altxorren aurkikuntzak daramakien poza nabarmena bizituz.

Paulo Freire, isilaldiari dagokion denbora eta neurriaren dastatzailea zen, berak deritzen zion: "letura do curriculum silencioso". Keinu pedagogiko ezinbestekoa.

HUTSEZINEZKO METODOA: ELKARRIZKETA

Talde dinamika, gogoetak, mahai borobilak, e.a. eguneroko jardunaldiak ziren Freireren ikasgela barruan. Hizkuntzaren eremu hegemonikoa bihurtzen zen ikasgela. Kultura ezberdinetako pertsonak, gizatasun puzketak, erdibanatzen genituen, batak bestearenganarekiko begirune giroan. Beti izaten baitira ulertezinak diren ikuspegi eta alderdiak gurea ez den kulturaren, behar bada inoiz ulertuak izango ez direnak kanpotarrengandik, baina errespetagarriak beti, ulertezin honen baikortasun pedagogikoak daraman ikusmira eta ahalegina mami hezitzaile hoberenetakoa gertatuz gehienetan. Ura askatasun ariketa ezin hobea bihurtzen zen, denok daramakigun autoritarismoa ezabatzearen lanean. Paulo Freirek maiz adierazten zigun, ez zegoela gauza hobeagorik autoritarismoa neurtzeko, gurea ez den kulturarekin bizi-kidetzea baino. Honetaz bera gizon esperimendatua zen, munduko ibiltaria hain zuzen, eta ibiltaria esaten dudanean bidea eginaz bizi zena esan nahi dut, ez noraezean dabilen horietako bat atorrante gisara. Brasildar seme bikaina zenez beti zeramkien zegokion kulturaren sama munduan zehar, nortasunaren ikur ezinbestekoa bezala bizituz. Horregatik besteen kultur ikurraren miresle parte hartzaile eta bizitzailea zen baita ere. Harreman dialogiko haiek, dagozkigun mugak, pertsona eta gizarte konkretu bateko parte hartzaile bezala, onartzera bideratzen gintuzten. Trebatze eta hezitze jardunaldiak ziren, ezberdinen arteko kidesuna izanaz pedagogia unibertsal honen ondorio zuzena, benetan aberasgarria.



Paulo Freire, Arantxa Ugartetxea eta Ana M^a Araujo (bere emaztea) bere etxean.

IRAKASLEA IKASLEA DELA, FREIREREGIN BIZITUTAKO BESTE KEINU PEDAGOGIKO BAT, DA

Ikusmira epistemologikoak, sortzeko ahalmenak, uste argiak, eta entzuteko zuen pazientziak, eramaten zuten Freire, irakurketa kritiko jator bat egitera, zegokion ingurunearen irakurketa, bizitzen genuen baina batez ere pertsonena, pertsonalki ulertuak sentituaraziz egiten genituen adierazpenetan. Irakurtzen zekien. Zer zegoen eta zergatik agertzen ginen era zehaz batetan, jakiten ahalegintzen zen. Benetazko irakurmenean saiatzzen zen, intuizio ulerkor baten jabe bezala bizi izan nuen berarekin edukitako harremanetan, eta ulertua sentitu nintzen. Eta... ulermen honi lotuta inoiz ahantziko ez dudan keinu pedagogikoaren bizitzailea naiz. Astelehen goiz batetan, ikastaroko bukaeran eta Pontificia Unibertsitate Katolikan aukera ezin hobea eduki nuen, berak eskatuz, Euskal Herriko hezkuntza kondaira zati baten agerpena egiteko, ikastolen sorkuntzari dagokiona hain zuzen, bera irakaslea nere ondoan eserita eta ni ikaslea eremu honetan bera baino jakintsuagoa, paperak aldatuz nolabait, baina azken batetan eguneroko jarduerari jarraituz, irakasle-ikasle irakaskuntza bizipenean. Niretzako benetan hunkigarria, ez nuen espero, gelako dinamika barruan sortutako zerbait izan zen, talde osoaren onarpenaren indarraz, beti bezala.

Berak, jakin nahi zuen, ezagutu, parte hartu, eta era berean taldearen ikusmira dinamika ildoan, bera bereziki nik adierazten nuenaren osatzaile, azpimarratzaile, miresle, eta ikertzaille izanaz. Egun hartako gela hura Euskal Herriko zati bat bihurtu zen, gure kultura eta hezkuntzan zenbait gauza amankomunak dauden bezte zenbait hezkuntzei dagokien istorioekin, xalotasun osoz bizituz. Irakasle eta ikasleek mundu honetako gizaki sortzaile eta miresleak garela egunero daramakigun gehiago "izateko" bilakabidean besterik ez da azken finean gertatutakoa, egun hartako lurjotze pedagogiko hartan.

Keinu pedagogiko honekin, terapia gisara, neramkien sama ezkorren arintasuna nabaritu nuen, nere gaztetxo, adolezente, eta gazte denboretako, zenbait pedagogikoak ez diren samarena, hain zuzen. Euskaraz hitz eginarazi zidan, gure hizkuntzaren berezitasuna mirestu zuen ere bai, eta gertaera hartan bizitutakoari jarraituz, ondorio zuzena izango balitz bezala, bere hitzetan adierazi zidan, nire kultur eta hizkuntza barruan zegoela dagokidan gauzate erreala, eremu berean bizitu eta bizituaraziz, praktika hezitzaileak daramakien egoera eta bilakabidea. Erronka baten gogoeta zen hura, benetan kritikoa, historiaz osatutakoa, gure euskal kulturaren onarpen eta mirespena agertzen zituenak, herri euskaldunak urteetan daramakien burrukaren ontzat ematea, gizaki eta gizatiar izate ibilbidean emandako urratsen mirespen zintzoa.

Era honetara bakarrik erantzun zezakien, egunerokotasunean izate autonomiko baten atzetik zebilen hezitzaileak, bai... burujabetasuna pertsona eta herri bezala aldarrikatzen dituen pedagogia eremuan genbiltzan ikasgela hartan. Paulo Freire tentsio pedagogikoan bizitzen zen pertsona zen, ez bakarrik ikastaldi orduetan, baizik bizigirotan, horregatik maiz gertatzen zen, ikasgelatik at bizi genituen zenbait egoerataz gogoeta pilo bat agertzea ikastaro ordu berezi haietan. Biziri buruzko gogoetak ziren, horrela, ikastorduak bukatu ondoren, autobusez etxerantz nindoala, brasildar herrigiro muinean murgildurik, jendegainezka gindoala autobuz trakets haietan, errealitateari zuzenean lotuta, sensibilizatuagoa aurkitzen nintzen xehetasunak argiago ikusiz, eta solidaritatea, herri harekin bat egitea eskubideen aldarrikapenetan, hitzez eta ekintzez gauza arrunta iruditzen zitzaidan. Teoria baten lurjotze ezinbestekoa zen hura. Hezkuntza bere sistematizazio erakundeetatik at zindotan, bizi osoak dituen bazter eta txoko barreiatzen zituelarik. Pertsona munduan dagoen artekari kontziente miresgarria dela, gauzak onbideratzeko eta baita ere deseuztapenerako, era argiagan sentitzen zen bizipenaren, une pedagogikoak ziren.

Laburbilduz esandakoa, beti gauza berari bueltak ematen ari naizela nabarmendu nahi nuke, Paulo Freireren hitzetan "Irakurketa" hitzak daramakien sama hezitzaile eta pedagogikoak ari naizela hain zuzen, denbora guztian:

– Irakasleak egin beharra daukan irakurketa dago dantzan, dagokion zenbait keinu pedagogikoen bidez.

– Ikasleak duen hitzaren irakurketa zuzena ezinbestekoa da ibilbide honetan.

– Hitzaren irakurketak, isiluneen irakurketa suposatzen du baita ere, "curriculum silencioso"ren irakurketa.

– Irakurri azken batean, pertsona eta berari dagokion zenbait adierazpenen ulertzea, hau da: argi ikustea, da.

– Askatasuna eta begirunea ezaugarri zehatzak dira hezkuntza praktika honetan.

– Hau dena, gizaki osatu gabeak garelako, gertatzen den zerbaite da, osakuntzaren bidean gabiltza, bata bestearen beharrean eta denok mundu argi eta zuzenagoaren eraikuntzan. Bizia tentsioa da, aurkikuntzaz eta ikusmiraz betetako tentsio zoragarria.

"Saber que não posso passar despercebido pelos alunos, e que a maneira como me percebam me ajuda ou desajuda no cumprimento de minha tarefa de professor, aumenta em mim os cuidados com o meu desempenho. Se a minha opção é democrática, progressista, não posso ter arma prática reacionária, autoritária, elitista. Não posso discriminar o aluno em nome de nenhum motivo. A percepção que o aluno tem de mim não resulta exclusivamente de como atuo mas também de como o aluno entende como atuo. Evidentemente, não posso levar meus dias como professor a perguntar aos alunos o que acham de mim ou como me

avaliam. Mas devo estar atento a leitura que fazem de minha atividade com eles. Precisamos aprender a compreender a significação de um silêncio, ou de um sorriso ou de uma retirada da sala. O tom menos cortês com que foi feita uma pergunta. Afinal, o espaço pedagógico é um texto para ser constantemente "lido", interpretado, "escrito" e "reescrito". Neste sentido, quanto mais solidariedade exista entre o educador e educandos no "trato" deste espaço, tanto mais possibilidades de aprendizagem democrática se abrem na escola¹.

Hitzaldi hau bukatu baino lehen aipamen berezia egin nahi dut, Freirek gozatutako bi emazteei buruz hain zuzen. Bere bizitzaren indar, kide eta agertzaille bezala agertzen baitira pedagogia ibilaldietan.

Lehenengoa, Elza Maia Costa de Oliveira, maistra; bost seme-alaba eduki zituen berarekin, hiru neska eta bi mutil. Bera ezagutzeko aukera izan nuen elkarrekin eginiko bazkarietan, apala, irribarretsua, entzuteko jarrera hartzaile nabarian aurkezten zen emakumea, hitz gutxikoa, basteen ulermen ikusmiratsuan kokaturik zegoela zirudien. Bera izan zen (Freireren hitzetan) pedagogiari bideratu zuena, bien arteko konplizitate hartan, bata bestearekiko begirune maitekorra zen, oso garbi, agertzen zena, gizontasunez eta emakumetasunez hornituak. Brasileraz esaten den bezala *um casal bacana* ziren. Elza bihotzetik jota hil zen, eta Freirek, bizitzeko era berritzea aurkitu behar izan zuen. Nahiko lurjota ibili zen garai hartan, biziaren zergatia falta zitzaiola zirudien, bere sentimenduak agertuz xalotasunean. Baina beti bizi nahian.

"Irakurtzeko egintzaren garrantzia" nik euskarara itzultitako liburuaren, egilearen eskubi-deen bila bere etxera joan nintzen goiz batetan, zerbait aldatzen ari zela nabaritu nuen. Argiago, alaiago, gogotsuago eta betiko Freire sortzailea aurkitu nituen. Egongelan beste pertsona batzuek zeuden, berak jangelara eraman ninduen, eta mahai eder hartako hertz batetan biok kokatu ginen. Eskubidea idazten zuen bitartean, isiltasuna egon zen, baina hau bukatu bezain laister, aurpegira aurrez aurre begiratzuz esan zidan: Arantxa "estou amando de novo". Zorionak esan ondoren nere poza agertu nion, baina berak jarraitu zuen "não estou tentando substituir Elza, é uma maneira nova de amar, é outra coisa; me ajuda para continuar vivo"; "é ELA", egongelan zegoen emakumeari begiratzuz esan zuen, "é vamos nos casar" gaineratu zuen. Orduan arduratu nintzen egongelan zegoen emakume hartaz. Bera baino gazteagoa, energiagaz beterik zegoen pertsona zirudien, bere ikasle izana, eta bera (Freire) bere aitaren ikaslea izana era berean. Benetan gertaera polit eta egokia.

Geroago, Ana Maria Araújo (Nita), gehiago ezagutzeko aukera eduki nuen, bera ere alarguna zen garai hartan. Benetan oso atsegina, xalotasun indartsuaren emakume irudia, du. Elkarrizketarako oso egokia eta abegikorra. Berehala integratu zen bizimodu berri hartan. Etxea era berri batetara apaindua somatzen zen, bien arteko bizigogoa eta maitasuna zen, dastatzen zena. Freire gaztetuagoa aurkitzen nuen eta eten gabeko iturri agortezinaren tankerara hasi zen liburuak idazten, bidaiak eta ikastaroak antolatzen berriro ere.

Nita historiagilea da, eta azken aldean Freirek idatzitako zenbait liburuetan, testuinguruaren lerro idatziak ipini ditu oharpen tankerara. Horrela Freireren ezaugarri nabarmenetako bat indartzen du: historikotasuna. Ordurarte Freirek beti Elzataz hitz egiten bazuen, bere zati pertsonal pedagogikoa izango balitz bezala; orain berriz, Nita berak, idazten du Freireri dagozkion kokamen historikoak osatuz, berak duen hitz atsegin eta argitsuen bidez, intelektualki biak, bata bestearen osagai gertatzen direlarik.

1. Pedagogia da Autonomia. P. Freire. Edil. Paz e Terra. 2. ediz. 109. or. Brasil 1997.

“Compartir un libro con Paulo es un privilegio y un gozo para mí. Siendo su mujer, no recibo sus invitaciones para participar en sus trabajos como un derecho o un deber sino como un privilegio y una alegría.

Privilegio de, contribuyendo en sus escritos, irme formando y reformando como intelectual y brasileña, pues su contenido en este nuevo libro, como en otros ya escritos, ha nacido radicalmente de la cotidianidad de su vida, de sus emociones y reflexiones surgidas de la experiencia recifense, pernambucana, brasileña antes que de las del mundo. Caminar con él en este recorrido es un hacerme y rehacerme más historiadora y más auténticamente nacional.”²

Ez dira egun asko Nitarekin hitz egin dudala, oso triste dabil, biziaren aldaketa onartu nahian, bizitzeko era berri bat aurkituko dudalakoan nago.

Bitartean... denok gabiltza neurri batean, gizon haren jakinduria gureganatu lanean, ez bakarrik ikastaroei dagokienez baizik, eguneroko praktikara lotuta dagoen pedagogia delako.

Paulo Freireren hitzekin bukatu nahi nuke:

Com humor e ternura, dizia que as grandes alegrias de sua vida foram os cinco filhos e, com a mulher, um aprendizado: *“Quanto mais se ama, tanto mais se ama.”*

HITZ BI

Zita hau, aipamen gisara dakart honera, bera izan delako, hitzaldi honen antolaketan, erreferentzia.

Paulo Freire irakaslearen hitz idatziak dira, eta irakurri ditudanean bizi azaltzen dira niretzat, bere aurkezpen fisikoaren irudia eta hitz hauen adiera, bizi izan ditudalako.

“UM GESTO APARENTEMENTE INSIGNIFICANTE”

“As vezes, mal se imagina o que pode passar a representar na vida de um aluno um simples gesto do professor. O que pode um gesto aparentemente insignificante valer como força formadora ou como contribuição a do educando por si mesmo. Nunca me esqueço, na história já longa de minha memória, de um desses gestos de professor que tive na adolescência remota. Gesto cuja significação mais profunda talvez tenha passado despercebida por ele, o professor, e que teve importante influencia sobre mim. Estava sendo, então, um adolescente inseguro, vendo-me como um corpo anguloso e feio, percebendo-me menos capaz do que os outros, fortemente incerto de minhas possibilidades. Era muito mais malhumorado que apaziguado com a vida. Facilmente me eriçava. Qualquer consideração feita por um colega rico da classe já me parecia o chamamento à atenção de minhas fragilidades, de minha insegurança.

O professor trouxera de casa os nossos trabalhos escolares e, chamando-nos um a um, devolvia-os com o seu ajuizamento. Em certo momento me chama e, Olhando ou re-olhando o meu texto, sem dizer palavra, balança a cabeça numa demonstração de respeito e de consideração. O gesto do professor valeu mais do que a própria nota dez que atribuiu à minha

2. A la Sombra de este Arbol. Itzul: A. Requejo. El Roure. Barcelona 1997.

redação. O gesto do professor me trazia uma confiança ainda obviamente desconfiada de que era possível trabalhar e produzir. De que era possível confiar em mim mas que seria tão errado confiar além dos limites quanto errado estava sendo não confiar. A melhor prova da importância daquele gesto é que dele falo agora como se tivesse sido testemunhado hoje. E faz na verdade, muito tempo que ele ocorreu...”

“PEDAGOGIA DA AUTONOMIA Saberes necessários à prática educativa” Paulo Freire Editora Paz e Terra S.A. 47-48 or. Brasil 1997.

EL GESTO PEDAGOGICO

Antes de ser alumna de Paulo Freire, tuve el enorme privilegio de leer en el rostro de una campesina colombiana, la alegría de saber que élla también era capaz de leer y escribir, en uno de aquellos días en que nos esforzábamos por poner en práctica su método de alfabetización de adultos. Se trataba concretamente de la palabra “casa”. Una de las expresiones más fuertes en aquel contexto. Aquella sonrisa iluminada y aquellos ojos mirándome fijamente eran la expresión o el gesto pedagógico que me animarían en adelante a no parar en la búsqueda de esta pedagogía que sabía devolver, al que es considerado incapaz, la creencia o la fe en la propia capacidad personal.

Todavía no sabía muy bien de qué se trataba, pero después descubrí, que yo sentía lo mismo al alfabetizarme en euskara..., pues alguien durante mis años escolares, a través de gestos no pedagógicos había introducido en mí la infravaloración e incompetencia de poderme realizar en mi lengua materna. Así experimenté el “yo también puedo”.

Estudié pedagogía y en aquellos años de universidad leí todo lo que encontré sobre Paulo Freire. Continué buscando, intentando identificarme. Al hilo de la vida en 1982 llegué a São Paulo (Brasil) y me instalé en esta ciudad por ocho años. Naturalmente, pregunté por Paulo Freire, y me respondieron que había vuelto del exilio en el 80 y daba clases en la Pontificia Universidad Católica (lugar donde le ofrecieron el primer puesto de trabajo a su regreso). Recuerdo con emoción aquel primer abrazo entre alumna y profesor, gesto pedagógico que canalizó la tensión que proporciona la distancia, el desconocimiento personal y la emoción de haber sido encontrado el profesor buscado y... de haber sido acogida con la sencillez de quien se siente reconocido y admirado. Con la naturalidad que le caracterizaba, acompañada de la frase “es un honor para mí” entramos en el aula, haciendo partícipes a todos de nuestro feliz encuentro.

Podría escribir páginas y páginas sobre las sucesivas emociones experimentadas en aquellas horas de clase, pero sólo me aproximaré a las que creo que fueron más vivenciadas en aquella pedagogía emocional, cargada de gestos que la hacían palpable, al hilo de una práctica exquisitamente profesional:

RESPECTO A LA PALABRA DEL ALUMNO(A)

Palabra antes que nada, escuchada, con todo el tiempo que merece, sin prisas. Palabra que junto con otras de otros alumno(a)s, completa la exposición del profesor(a). Palabra que jamás es inútil. Finalmente era la palabra del profesor(a) con la del alumno(a), es decir la palabra profesor(a)-alumno(a).

LA LECTURA DEL SILENCIO

El respeto al silencio como parte de la palabra hablada, es otro de los gestos pedagógicos más sutiles y reales en la práctica educativa de Paulo Freire. El silencio solía ser de una elocuencia sentida a flor de piel, era experimentar: que la exposición combidaba a viajar más allá de la circunstancia concreta que se estaba dando, de tal manera que, apropiándonos algún matiz de lo expuesto, reelaborado de nuevo por nosotros(a)s transcendía aquellas mesas y pupitres convirtiéndose en admiración, reflexión y compromiso de algo concreto en nuestra vida diaria.

EL DIALOGO ERA EL MÉTODO INFALIBLE

La dinámica de grupos reflexivos y puestas en común era lo habitual en el día a día. El aula se convertía en el espacio hegemónico del lenguaje, donde culturas diferentes a la brasileña compartíamos pedazos de humanidad dentro del respeto y la curiosidad que lo diferente causaba muchas veces. Aquello era un ejercicio liberador del autoritarismo que existe dentro de nosotros, pues la experiencia real de que hay cosas propias de cada cultura incomprensibles para otras, nos adiestraba en el respeto y el reconocimiento de las propias limitaciones, que son también sociales y culturales. La amistad entre diferentes fue para mí una consecuencia enriquecedora de esta pedagogía universal.

EL PROFESOR(A) ALUMNO(A) O EL ALUMNO(A) PROFESOR(A)

Es otra de las actitudes vivida en la práctica educativa con Freire. En los trabajos realizados personal y grupalmente, sabía leer o intentaba descubrir, qué habla y quién era el(la) que así se expresaba. Tenía una especie de intuición comprensiva, en la que nos sentíamos reconocido(a)s. Y... fue así que tuvo un gesto pedagógico personal conmigo que jamás olvidaré. Un lunes por la mañana me dió la oportunidad de utilizar las tres horas de aula que le correspondían, para comunicar y exponer de la mejor manera posible: el proceso de formación de las ikastolas en la época de la dictadura Franquista, en Euskal Herria. El junto con el resto de alumno(a)s, "querían saber". Con este gesto pedagógico sentí el alivio de esa carga negativa de tantos gestos no pedagógicos vividos en la práctica educativa de mi infancia, adolescencia y juventud. El habló de que mi práctica educativa debía vivirla principalmente en mi lengua dentro de mi propia cultura. Era un reto, una reflexión crítica, un reconocimiento y admiración por la cultura euskaldun, por sus gentes y por qué no decirlo por nuestra lucha. Sólo de esta manera podía reaccionar quien proclamaba e intentaba aproximarse en su cotidianidad a un "ser" más autónomico y solidario, viviendo en esa tensión pedagógica permanente, no sólo en el círculo educativo sino también social.

CONCLUYENDO

Creo que siempre estamos dando vueltas a lo mismo, es decir a la carga pedagógica que lleva consigo la práctica de una buena "lectura" en la concepción de Paulo Freire:

– Lectura de gestos, lectura de la palabra, lectura del silencio, en un ambiente de respeto y libertad. Todo ello consecuencia de nuestra necesidad solidaria para complementar nuestras limitaciones personales en la construcción y reconstrucción tanto personal como social.

– En palabras de Freire: la vida en este mundo es tensión, creación, hacer y rehacer. Una constante práctica que va haciendo historia.

Antes de terminar esta comunicación quiero manifestar, el cariño y respeto que siempre percibí en Freire, respecto a su primera mujer Elza Maia Costa de Oliveira (maestra), con la que tuvo cinco hijos: y con relación a Ana María Araújo su segunda esposa. De Elza hablaba con frecuencia y la consideraba como impulsora principal de su vocación pedagógica. Murió en 1986, circunstancia ésta vivida con enorme tristeza por él.

Ana María (Nita), historiadora y alumna suya, siendo que él a su vez fué alumno de su padre. También viuda. Nita ha pasado a ser protagonista en los libros de él, aportando con su contextualización histórica, la ratificación de una de las características más propias de esta pedagogía Freireana: la historicidad del ser humano.

He tenido oportunidad de conocer a las dos: Elza era la expresión femenina de la receptividad y atención al otro y Nita es la comunicación inteligente y acogedora dentro de una gran sencillez personal. Está muy triste en estos momentos por una gran pérdida, pues Paulo Freire falleció el dos de Mayo pasado.

Com humor e ternura, dizia que as grandes alegrias de sua vida foram os cinco filhos e, com a mulher, um aprendizado. " Quanto mais se ama, tanto mais se ama".



Paulo Freire eta Arantxa Ugartetxea.